

Gradu Amaierako Lana

NAFARROAKO KONKISTAREN 500. URTEURRENAREN ERAGINA MEMORIA KOLEKTIBOAN: IRAGANAREN IKURRAK GIZARTE-PAISAIAN.

Filologia eta Historia Saila

Ikaslea: Edurne Abaigar Antoñana

Irakaslea: Juan José Larrea

Historiako Gradua, 2020-2021 ikasturtea

Gasteiz

Laburpena

Lan honetan Nafarroako konkistaren 500. urteurrenak memoria kolektiboan izandako eragina aztertu dut. Xede horrekin, Nafarroako eta EAeko gizarte-paisaian aurki daitezkeen iraganeko ikurrak (Arrano Beltza, Amaiurko monolitoa, Nafarroako kateak..) hartu ditut abiapuntutzat. Sinbolo horiek memoriaren eta historiaren arteko zubiak diren heinean, lan honen ikerketa-objektu gisa finkatu ditut. Horiek aztertzeke lehen urratsa, inkesta bat gauzatzea izan da, ikur horien irudikapen soziala ezagutzea ahalbidetu duena.

2012. urtea inflexio-puntu gisa hartu nuen, konkistaren 500. urteurrenaren harira ospatutako ekimen guztiengatik. Testuinguru horretan, aurretik zetozen esparru kontrajarriak -*navarrismo españolista* eta *navarrismo vasquista* - mantendu ziren arren, bestelako ekimeneke lan handia egin zuten gertakizun historiko hau gizarteratzeko. Horietako bat Ezker Abertzaletik sortutako 1512-2012 Nafarroa Bizirik ekimena izan zen 2012-2013 urteen bitartean gauzatua, hitzaldiak, ekitaldiak, kontzertuak etab. antolatu zituen.

Urte horretatik aurrera ikurren areagotze bat antzematen da bi esparru publikoen bitartez: San Ferminetako txupinazoa eta Sadar estadioa. Horietan Nafarroako Erresumarekin lotutako ikurrak presentzia hartzen joan dira azken urteetan. Era berean, gizarte-paisaian, gazteei lotutakoan, batez ere, ikus daitezkeen ikurren azterketa esanguratsua izan da: musika, tatuajeak, janzkera eta sare sozialak. Arlo horretan, esanahi historiakoari erreparatuz gero, hainbat kontraesan identifikatu ditut, eta horiei azalpen bat ematen saiatu naiz.

Egindako azterketaren bidez, memoria kolektiboak zenbait gertakizun historiko (kasu honetan 1512. urteko konkista) gaur egungo helburu politikoak lortzeko (edo argudiatzeko) gidoian txertatzen dituela ikusi da. Memoria horren eraikuntza prozesuan hainbat erabaki hartu behar dira: zer oroitu, zer ahaztu eta loriatsua edo lotsagarria denaren artean erabaki. 2012. urtean Nafarroa Bizirik sortu zen moduan, 2021ean, Nafarroa Altxa sortu da, Noingo Batailaren 500. urteurrenaren harira, Nafarroaren eta Euskal Herriaren askatasuna eta burujabetza aldarrikatzeko. Aurretik aipatutako kontraesanekin lotuta, zenbait paradoxa aurki daitezke, esaterako, konkistaren garaian

Nafarroako erreinuaren parte ez ziren lurraldeak (Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia) barne hartzea.

Horrez gain, ikurren erabilerak esanahi historikoa nahasteko gaitasuna duela azpimarratu nahi izan dut, gaur egun ikur bati ematen zaion interpretazioa kontraesankorra izan daitekeelako, jatorrizkoarekin alderatuz gero. Guzti horrek osatzen du memoria kolektiboa, eragin ideologiko ukazina duena. Ordea, nahasketak eta gaizki-ulertuak sor ditzake diskurtso historikoa alboratzean. Azkenik, hurrengo belaunaldiei helaraziko zaien historia baldintzatuta egongo den kezka plazaratu da.

Sarrera	4
1.Inkesta baten bidezko lehen hurbilketa	5
1.1. Emaizten analisia	6
2. 500. urteurrenaren inguruko ekimenak eta ekimen horien eragina	10
2.1. Nafarroa Bizirik	11
2.2. Bi esparru publiko	14
2.2.1. San Ferminetako txupinazoa	14
2.2.2. Sadar estadioa (Indar Gorri)	17
3. Ikurrak gizarte-paisaian	18
3.1. Musika	18
3.2. Tatuajeak	21
3.3. Janzkera	22
3.4. Sare sozialak	23
4. Historiarekin eraikitzen den memoria, abesti baten analisiaren bitartez	24
4.1. Arrano Beltza	26
4.2. Amaiurko Gaztelua	28
4.3. Kateak	30
4.Ondorioak	31
5. Bibliografia	34
6. Webgrafia:	35
7. Irudien eranskina	36

Sarrera

Ikurrak, memoria eta historiaren arteko zubia direla esan daiteke. Lehenengoa, esperientzia pertsonal eta kolektiboekin lotzen den bitartean, bigarrena oroitzen duen subjektuaren izaera indibidual edo pluraletik haratago doan gizarte-zientzia da. Lan honetan, memoria kolektiboaren parte diren ikurretaz jardun dut. Honen oinarria, azalduko dudan bezala, oroitzapen baliabideetan datza, objektu materialak (monumentuak eta oroitarriak), bitartekari literarioak (mitoak eta errelatoak) edo erritualak (oroimen ekitaldiak). Hauek material, argudio eta gidoi gisa jokatzen dute, jadanik desagertuta dagoen baina baliagarritasunen bat duen zerbait berriz aurkezteko (Carretero et al., 2006).

Nafarroako konkistaren auzia, Nafarroan urteetan zehar pil-pilean egon den eztabaida izan da eta 2012. urtean 500. urteurrenaren harira are gehiago. Gai historiografiko gutxik pizten dute nafarren artean hainbesteko interes-maila. Honen inguruan interpretazio-esparru kontrajarriak mantentzen dira *-navarrismo españolista* eta *navarrismo vasquista*- Peio Monteanok (2012-2013) bere artikuluan azaldu bezala. Interpretazio hauekin eta lan honetan landuko dudan gaiarekin lotuta Iñigo Muguetak (2018) egindako lana oso interesgarria da. Bere artikuluan, Nafarroako konkistaren irudikapen eta erabilera sozialak aztertu zituen, sentimenduen analisisa abiapuntu bezala hartuta. Bertan autore ez-unibertsitariak egindako interpretazio historikoak aztertzen ditu eta hauek Nafarroako gizartean duten eragina (Twitter sare sozialaren bidez, adibidez).

Nire helburua, gazte jendearen gizarte-paisaian identifika daitezkeen ikurren esanahi historikoa eta eman zaizkien interpretazioak azaltzea izango da. Hori egin aurretik, perspektiba pertsonaletik haratago joateko, egindako galdeketa baten emaitzak aztertuko ditut. Ondoren, Nafarroako konkistaren 500. urteurrenaren eragina azaltzen saiatuko naiz, ekimenaren jarduerak eta ikurrak identifikatzen diren bi esparru publikoren deskribapena eginez. Hauek erabiltzen dituzten ikurrek gizarte-paisaian duten erabilerak zehaztea ahaztu gabe. Bukatzeko horiekin eta historiarekin eraikitzen den memoria, abesti baten analisiaren bitartez azalduko dut.

1. Inkesta baten bidezko lehen hurbilketa

Gizarte-paisaia Nafarroako erresumarekin lotutako ikurren presentziaren nire pertzepzio pertsonaletik haratago jakiteko, galdeketa egin nuen¹. Aldi berean, ikur horien ondorioz sortzen diren irudikapen sozialak ezagutu nahi nituen. Horretarako galdetegi bat prestatu nuen Nafarroa mailan, Whatsapp eta sare sozialen bitartez zabalduz. Euskaraz eta gaztelaniaz zeuden zazpi galderak osatzen zuten. Bi motatako galderak zeuden, aukeratzeko eta idazteko.

Galdeketa honen helburuak mugatuak zirela kontuan hartu behar da, inkestaren izaera informala baitzen, zabaltzeko moduak eta galderak islatzen duten bezala. Horregatik erantzunak adierazgarriak izan daitezkeen arren, argi utzi nahi dut ez dela inkesta soziologiko bat.

Galderak hauek izan ziren:

1. Adin-tartea: Aukera bezala sei adin-tarte ezarri nituen: 15-25, 26-35, 36-45, 46-55, 56-65 eta + 65. Galdeketa 15 urtetatik aurrera zabaltzeko arrazoiak argiak dira, historiari dagokionean oinarrizko jakintza maila eskuratuta dagoen adina izateaz gain, azaldutako esparru publikoetan -txupinazoa, kontzertuak eta jai-giroa orokorrean- presentzia, normalean adin horretatik aurrera ematea delako.
2. Nahitaezko Bigarren Hezkuntzan (adinaren arabera, Oinarrizko Hezkuntza Orokorrean) edo Batxilergoan, Nafarroako erresumaren edo konkistari buruzko informazioa jaso zuten erantzun behar zuten, bai edo ez erantzunekin.
3. Aurrekoan bai erantzun zutenei zer irakatsi zieten azaltzeko eskatzen zitzaien.
4. Nafarroako erresumarekin zerikusia duten sinboloak (kateak, Amaiurko monolitoa eta abar..) egunerokotasunean maiztasun handiarekin ikusten zituzten edo ez, galdetu zitzaien.
5. Aurrekoan bai erantzutekotan, hurrengo galderan sinboloak non ikusten zituzten jarri behar zuten.

¹Egindako galdeketaren emaitza guztiak datu-base batean bilduta daude. Hala ere, azken orrialdean, adibide gisa, inkestaren atal bat jarri dut.


6. “Nafarroako konkista” irakurtzerakoan burura zer etortzen zetorkien azaldu behar zuten.
7. Nafarroako historiari buruzko interes-maila nolakoa zen hiru aukeren artean adierazi zuten: handia, ertaina edo oso txikia.

Galdeketa guztiz anonimoa izan zen, datu pertsonal bakarria adin-tartea izanik. Modu honetan, erantzuten ari zen pertsonari buruz ez neukan inolako informaziorik: emakumea edo gizona zen, maila sozio-ekonomikoa edota ideologia politikoa. Honela, azaldutako galdera itxiek (2. edo 4. adibidez) alderdi subjektiboak ezkututzen zituzten bitartean, galdera irekiek (5. galdera adibidez) askatasun gehiago ematen zuten erantzuteko. Erantzun horietan esperientziatik abiatutako iritziak, jarrerak eta ideiak agerian geratuz.

Inkesta honen helburu nagusia nire pertzeptziotik harago ikustea izan zen. Gizartean Nafarroako erresumarekin lotuak zeuden ikurren presentziaren inguruan, adin ezberdinetako pertsonen ikuspegia ezagutzea zen asmoa. Hala ere, inkestaren antolamendua ez zen bakarrik ikurretara mugatzen. Galdera guztiak gai beraren barruan sartu ahal baziren ere, alor ezberdinak jorratzen zituen: hezkuntza (2. galdera), ikurren kale-presentzia (4. galdera) eta ikuspegi pertsonala (6. eta 7. galderak). Modu honetan, jasotako erantzunak alor asko ikertzeko baliagarriak izan daitezkeen arren, lan honetan ikurretan zentratuko naiz.

1.1. Emaitzen analisisa


Galdeketa lagina 435 pertsona izan ziren, lehenengo galdera adina zehaztea zenez, adinen sailkapena egin daiteke :



1.1. Grafikoa: Adin-tarteen kopuruak (ehunekotan).


Ikus daitekeen bezala, galdeketari erantzun ziotenen gehiengoa 15-25 urte bitartean kokatzen da, 56-65 tartearen aurretik. Orokorrean, erantzun zutenen adin-tarteen artean ez da alde handiegia ikusten, %50 gainditzen duen tarterik ez baitago. Beraz, adinei dagokienean orekatua dela esan daiteke.

Nafarroan bizi den pertsona baten egunerokotasunean daukan presentzia neurtzeko, bi galdera zeuden: laugarrena eta bosgarrena. Alde batetik, inkesta bete zuten 435 pertsonen artean, %61,3ak egunerokotasunean ez zeukatela presentziarik eta %38,5ak baietz esan zuen grafikoa ikus daitekeen bezala.



1.2.Grafikoa: Laugarren galdera, Nafarroako Erresumarekin lotutako ikurrak egunerokotasunean ikusten zituzten, bai edo ez erantzun behar zuten.

Horretaz gain, lehenengo galderan adin-tartea zehaztu zutenez honen araberako sailkapena egin dut. Ikus daitekeen bezala tarte gazteena nagusitzen den arren ez da honetara mugatzen, beste adin-tarte guztiek ere ikusten dituztelako, kopuru baxuago batean bada ere. Horrek adieraz dezake ikurren presentzia gazteen esparruetan nabarmentzen den arren beste adinetako esparruetan badagoela eta ez dela bakarrik gazteek daukaten pertzepzioa. Hauen arteko aldea, ikurrak bereganatzen dituzten formak (janzkera, sare sozialak, tatuajeak eta abar) izango dira.




1.3.Grafikoa. Ikurren presentzia egunerokotasunean ikusten dutenen sailkapena adinaren arabera.

Baina hurrengo galderak, baietz erantzun zutenek soilik erantzun beharrekoa, arazoak eragin zituen. Laugarren galderan baietz erantzun zuten askok, bosgarren galdera hutsik utzi zutelako eta aldrebes, ezetz erantzun zuten askok erantzun zutelako. Beraz, bosgarren galderako erantzunak aztertzerakoan, aurrekoan baietz esan zutenenak bakarrik hartu nituen kontuan. Modu honetan, bosgarren galderan 158 erantzun jaso baziren ere, soilik baietz esan zutenen erantzunen arabera, multzoka antolatu nituen: “armarriak”, “banderak”, “kantak”, “erakundeak”, “jaiak”, “kalea”, “kamisetak”, “lana”, “lepoko, txapak”, “manifestazioak”, “monumentuak”, “pintadak”, “sare sozialak” eta “tatuajeak”.

Erantzunak nahiko adierazgarriak dira, zenbait sare sozialen esparrua nabarmentzen delako. Honekin agerian geratzen da, Nafarroako erresumarekin lotuta dauden ikurrek, sare sozialetan eta kantetan presentzia handiena daukatela². Armarrietan, banderetan eta kalean, presentzia ere badagoela baieztatzen da eta bestelako esparruetan, txikiagoa bada ere..

² Gogoan izanda, bi esparru hauek elkarlotu daitezkeela sare sozial batzuen bidez: Instagram-ean, argazkiari (adibidez: Amaiurko monolitoan ateratakoa) abesti bat (adibidez: Brigade Loco taldearen *Gaztelu Beltza*) txertatzeko aukera dagoelako.



1.4.Grafikoa. Ikurren presentziaren jatorrien sailkapena

Sare sozialetan ikusten zituztela erantzun zutenen artean, aurretik azaldutako bi fenomeno identifikatu ditut. Alde batetik, sare sozialetan ikusten diren argazkien artean Amaiurko monolitoa identifikatzen dela, pertsona batek adierazi duen bezala: “jendeak ateratzen dituen argazkietan Amaiurren, jendeak egindako marrazkiak...edozein egunetan”. Bestetik, Nafarroaren egunean, jendeak igotzen dituen argazkien bidez, ikurrek presentzia handia hartzen dutela agerian geratu da. Erantzun batean irakur daitezkeen bezala: “Instagrameko istorioetan, Nafarroako egunean”.

Honekin batera, kantetan ikusten dituela erantzun duen pertsona batek, aurrerago azalduko ditudan esparru eta ikurren arteko lotura egiten du:

“Azken aldian musika talde euskaldunek batez ere euskaldunon historiaz aritu dira, honek jendearen interesa piztu du eta oso ohikoak dira Amaiurko monolitoan ateratako argazkiak, monolitoa daramaten kamisetak, jendeak egin dituen Nafarroako kateen edo monolitoaren tatuajeak...”.

Honen arabera, ikurren erabileraren loraldia musika-taldeek egindako abestiekin elkarlotzen du, abestiak jakin-mina piztu duela aitortuz.

Nahiz eta lan honetan ikurrei dagozkion erantzunetan zentratu naizen, beste galderen erantzunen artean aurki daitezkeen zenbait ideia interesgarri aipatuko ditut. Bosgarren

galderan, “Nafarroako konkista” entzuterakoan zer zetorkien burura erantzun zutenen artean sentimendu ezberdinak identifikatu ditut: amorrua, harrotasuna eta inposizioa.

Bosgarren galderan ere, aipatzekoa den beste aspektu bat gertakizun historikoen nahasketa da. Nafarroako konkista entzuterakoan askok Orreaga edo Navas de Tolosako guduak oroitzen dituztela adierazi zuten. Konkista 1512-1521 urteetan kokatzen den bitartean, Orreaga 778 eta 824 urteetan eta Navas de Tolosako guduak 1212 urtean kokatzen dira. Alde kronologiko handia daukaten gertakizunak diren arren, galdeketa batera agertu dira. Egia da, hiru gertakizun historiko ezagunetarikoak direla Nafarroako historiari dagokionez baina, honek Nafarroaren historiari buruz ezjakintasun maila bat dagoela agerian uzten du. Hau aldi berean, galdeketa bigarren galderarekin lotu daiteke, %50ak baino gehiago Nafarroaren historia ez duela hezkuntza-eremuan inoiz jaso adierazi baitu.

Galdeketa eskaintako erantzunekin, gaur egun, Nafarroako erresumarekin lotzen diren ikurrek presentzia handia daukatela berresten da. Halaber, ikusi da ikurren eta gertakizun historikoen irudikapen sozial ezberdinak daudela eta hauek sentimendu ezberdinak sortzen dituztela gizarte-sektorearen arabera.

2. 500. urteurrenaren inguruko ekimenak eta ekimen horien eragina

2012. urtean Nafarroan hausnarketak, memoriaren piztea eta aurretik zeuden tentsioak iraganaren irakurketaren gainean, berriz mahaigaineratu ziren. Urte horretan, Nafarroako Erresumaren konkistaren 500. urteurrena izan zen eta horren harira hainbat mintegi, seminario, jardunaldi, manifestazio, omenaldi, erakusketa, musika eta antzerki ikuskizun antolatu ziren argitalpen anitzekin batera (liburu, artikulua, komiki, DVD, eta abar) (Monteano, 2012). Testuinguru honetan sortutako zenbait ekimenek orientazio argia, jardun eta helburu zehatzak zituzten eta ondorioz, gizarte-sektore batean eragina izan zuten. Ekimen ezberdinek erabiltzen zituzten ikurrak, atzetik dagoen diskurtso historikoaren isla direla esan daiteke.

Horrelako ekimenek gizarte-paisaia duten eragin maila jakiteko, 2012. urtea izango da lan honen abiapuntua. Horretarako, *Nafarroa Bizirik 1512-2012* urte horretan eta hurrengoetan egindako lanari arreta jarriko diot, gaur egun ikur ezberdinek duten

kale-presentziarekin duten harremana aztertze. Halaber, ikur horien presentziar azaltzen saiatuko naiz, bi esparru publikoen bitartez: San Ferminetako txupinazoa eta Osasauna futbol-taldearen estadioa.

2.1. Nafarroa Bizirik

2008tik lanean zebilen Ezker Abertzaletik sortutako *Nafarroa Bizirik* ekimena 2012. urterako hainbat ekitaldi eta jarduera antolatu zituen Nafarroako konkistaren inguruko memoria historikoa berreskuratzeko helburuarekin. Hedabideentzako egindako dossier batean aurkeztu zuten ekimen hori eta bertatik atera dut atal honetarako informazioa, bestelakorik adierazten ez badut³. Ekimenaren helburua Nafarroako konkistaren V. mendeurrenak merezi zituen lekua eta tratamendua ematea zen. Hori, garaileek idatzitako bertsio historiko ofiziala deuseztatuz eta gertakizun horiek Nafarroan izan zuten ondorioak plazaratuz lortuko zutela adierazi zuten. Diskurtso hau, aurrerago aztertutako dudan abesti batean identifikatu daiteke. Aldi berean, dossierretan adierazi zuten bezala, gertakizun historiko horren eraginez hasitako akulturazio prozesuari aurre egitea ere helburu zuten: “(...) y haciendo frente con ello al largo proceso de aculturación que se puso en marcha con aquellos trágicos acontecimientos históricos (...). “

Hori lortzeko, jarduera anitzak antolatu zituzten: konferentziak EAEn eta Nafarroan zehar edo haiek dossierrean idatzi bezala “*a lo largo de nuestro pueblo*” gazteluen mugarriztatzea edo liburuen eta diskoen argitalpena, besteak beste. Memoriaren berreskuratze bidean, ahalik eta babes gehiena erakarri nahi izan zuten: udalak, erakunde kulturalak, alderdi politikoak, artistak, musikoak, herri kolektiboak, sindikatuak...

Ekimenaren ordezkariak azaldu bezala, Nafarroako erresuma babestu zuten gazteluen hobekuntza eta seinaleztapena ezartzea, bi helburu lortzeko asmoarekin egin zuten. Alde batetik, nafar gazteluen iraupena eta haiekiko errespetua bermatzea, eta bestetik, Nafarroaren memoria historikoa berreskuratzea, defentsa-sistema zaharra bereraikiz. Ezarritako mugari historiko hauek (1.1.irudia) gotorleku bakoitzaren kokapena ezagutzera ematea zuten helburu; hauetako askoren aztarnarik ez dela geratzen kontuan

³ *Informe de presentación sobre la iniciativa “1512-2012 Nafarroa Bizirik”*. 2012ko maiatzaren 28 eta 29an Madrilén.
https://issuu.com/1512-2012nafarroabizirik/docs/informe_prensa_madrid_28-29_de_mayo (Azken kontsulta: 2021/05/26).

hartuta, nafar guztiek bisitatu eta bere garrantzia interpretatzeko aukera emango zien.

Nafarroa Bizirik ekimenak mugarri-eredu bakarra diseinatu zuen "iraunkortasunaren eta estetikaren berme zoragarriekin", erresuma zaharreko Erdi Aroko eraikuntza militar guztietarako diskurtso historiko bateratzailea gauzatzea ziurtatzen zuena (Santamarina, 2016). Mugarri hauen ezarpena, lekuan lekuko udalaren babesarekin eta "(lekuaren izena) Gazteluaren Eguna" deituriko jaiegun batean egiten zen (1.2.irudia).

2012-2013 ikasturtean zehar egindako lanari buruzko txostena argitaratu zen arte (2013ko abuztuan) mugarriak leku hauetan ezarri ziren: Aitzorrotz (Eskoriatza), Irulegi (Aranguren), Gorriti, Beloaga (Oiartzun), Mendikute (Tolosa), Orarregi (Irurzun) eta Irurita (Urdiain). Hurrengo egunetan: Amaiur, Iruña, Aibar, Huarte-Iruña, Lizarra eta Huarte-Arakilen jarriko zituztela adierazi zuten dossierran. Mugarri hauetan ezarri zen testuan, Iñaki Sagredok (ikerlari eta Nafarroako Erreinuko defentsa sisteman aditua) eta Joseba Asironek (historialaria) kolaboratu zuten. 2013ko apirilean GARA egunkariaren laguntzarekin, "Nafarroako Erresumaren Gazteluetako ibilbideak" liburua argitaratu zuten⁴. Mugarri bakoitzaren kostua 1.000-2.000 euroren artean egongo zela kalkulatu zen (ezarpena barne). *Nafarroa Bizirik* ekimenak hala baieztatu zuen 2015. urteko abenduaren 24ean egindako prentsaurreko batean (Mugueta, 2018).

Ekimenari atxikitutako eragile politikoak hauek izan ziren: EAJ-PNV, Aralar, Bildu, Ezker Abertzalea, Geroa Bai, NaBai eta Partidu Karlista-EKA. Atxikitutako udalen artean: Abaurrea-Gaina, Aduna, Alegia, Alkiza, Altsasu, Ancin, Lizarraga, Aurrabilla, Atxondo, Aulesti, Auritz, Azkaine, Bakaiku, Banka, Barkoxe, Basaburua, Baztan, Bera, Bergara, Berriozar, Berriz, Elorrio, Ergoiena, Eskoriatza, Etxalar, Etxarri-Aranatz, Gernika-Lumo, Hernani, Hondarribia, Igantzi, Ikaztegieta, Irurtzun, Lakuntza, Larraun, Leitza, Lekunberri, Mallabia, Mendigorria, Nabaskoze, Sunbilla, Uharte, Urepele, Urretxu, Usurbil.

Hitzaldiei dagokienez, udalek, erakunde desberdinek edo ekimenaren batzorde herrikoiek antolatu zituzten Euskal Herrian zehar. Dossierrean aipatzen dutenez, jarduera bakoitzean parte hartzaileen batz bestekoa 30-40 artean egongo zen. 2011ko

⁴ 2012-2013 ikasturtean egindako lanari buruzko txostena. 2013ko abuztuan
<https://issuu.com/1512-2012nafarroabizirik/docs/txostenadossier20122013> (Azken kontsulta: 2021/05/26)

martxotik 2012ko maiatza bitartean 90 aurkezpen baino gehiago egin zituzten⁵.

Produkzio kulturalari dagokionez, “500 años de Conquista” izendaturiko liburuaren hirugarren edizioaren aurkezpena antolatu zuten 2012ko martxoaren 13an, dossierrean hau aurkezterakoan publikatutako oharra irakur daiteke:

Estamos reconstruyendo la memoria histórica en torno a la Conquista de Navarra ! Muchas gracias y felicidades a todas las personas y colectivos que os dedicáis a ello. (...) Desde Tuter a Oiartzun, de Donibane Garazi a Eskoriatza, de Lizarra a Gernika, en Amaiur e Iruñea, en Gasteiz y en Erronkari, el pueblo sigue vivo porque somos navarras irredentas. Tras 500 años, NAVARRA SIGUE VIVA!

Horretaz gain, urte bereko apirilaren 20an “Navarra 1512” (1.3.irudia) izeneko egunkari bat simulatzen zuen aldizkaria aurkeztu zuten, Nafarroako historiaren “manipulazio eta ezkutaketa”-ren kontrapuntu izateko asmoz. Kulturari dagokionean, “Nafarroa Bizirik” deituriko musika albuma aurkeztu zuten, geroago arretaz aztertuko dudana. Artearen alorrean ere, Nestor Basterretxea bermeotarrak “Tras el invierno el arbol germina” lana aurkeztu zuten 2012ko martxoaren 31n, ekimenaren ikurra izan zena. Urte bereko ekainaren 16rako martxa “nazionala” deitu zuten (1.4 eta 1.5.irudia) lip-dub popular eta jai-agenteen (Bilboko Konpartsetako kideak, Iruñako peñak, Dostiako Piratak, Gasteizko blusa eta neskak besteak beste) bidez, egun osoko egitarau batekin⁶.

Hezkuntza eremuan ere inizatiba bat aurkeztu zuten, Nafarroako Historiaren Curriculum berri baten aldeko dinamika, hain zuzen. Txostenean azaldu bezala, martxoaren bukaeran, hezkuntza munduko eragileen babesa jaso zuten (STEE-EILAS, ELA, LAB, Ikastolen Federazioa, Sortzen Ikasbatuaz, Ikasle Abertzaleak...) hori aurrera eraman ahal izateko. Ekimenetik, Nafarroako Historiaren curriculumaldatzeko egiten ari ziren ahaleginekin bat egitera animatu zituzten. Ekimenekoen ustez, Historia eta Nafarroako oroimen historikoa berreskuratzeko lanean ziharduten eragileak -Hezkuntzako sindikatuak, argitaletxeak, historialariak, ikasle-elkarteak, guraso-elkarteak, eta ikastetxeetako irakasle eta zuzendari elkarguneak- bat egiteko

⁵ Informe de presentación sobre la iniciativa “1512-2012 Nafarroa Bizirik”. 2012ko maiatzaren 28 eta 29an Madrilén.

https://issuu.com/1512-2012nafarroabizirik/docs/informe_prensa_madrid_28-29_de_mayo

⁶ Informe de presentación sobre la iniciativa “1512-2012 Nafarroa Bizirik” 14.or. 2012ko maiatzaren 28 eta 29an Madrilén.

https://issuu.com/1512-2012nafarroabizirik/docs/informe_prensa_madrid_28-29_de_mayo

beharra ikusten zutelako, Nafarroako Historiak haien ustetan merezi zuen lekua har zezan.

Zentzu horretan, bi puntu beltz aipatzen zituzten. Alde batetik, 2012.urtearen hasieran, Nafarroako Hezkuntza Sailak aurkeztutako literatura-lehiaketa, haiek “ betiko iruzurrak jasotzen zituena” bezala deskribatu zutena. Bestetik, curriculum hori aldatzeko aurkeztutako mozioa, apirilaren hasieran Nafarroako Parlamentuan atzera bota zutena, UPN eta PSNren kontrako botoei esker.

Nafarroa Bizirik ekimenak 2013tik aurrera ez zuen oso modu aktiboan jardun. 2014ean hitzaldiak, liburu aurkezpenak edota mahainguruak antolatu zituzten baina urte horretatik aurrera informazio gutxi aurki daiteke ekimenaren jarduerari buruz⁷. 2015ean mugarri historikoak jartzeari berriz ekingo ziotela adierazi zuten⁸.

2.2. Bi esparru publiko

Atal honetan, *Nafarroa Bizirik* ekimenak kalean izan duen eragina neurtzeko, lehen hurbilketa bi esparru publikoren bitartez aurkeztuko dut. Esparru eta forma ezberdinetan antzeman daitezke baina erreferentzia horiek batzen diren bi esparru publiko nabarmentzen direla identifikatu dut: Iruñako San Ferminetako txupinazoa eta Osasuna futbol taldearen zelaian. Honetan ere, 2012. urtetik aurrera aztertuko ditut.

2.2.1. San Ferminetako txupinazoa

Lehenengo esparru publikoa, San Ferminei hasiera emateko udaletxeko plazan botatzen den txupinazoa izango litzateke. San Ferminetako txupinazoaren esparruak garrantzia handia dauka eta oso adierazgarria da arrazoi ezberdinengatik. Alde batetik, Iruñako San Ferminak munduko bazter guztietako jendeak joaten diren festak izanik, bai Espainiako komunikabideek eta bai mundukoek transmititzen dute zuzenean jaiaren

⁷ *Nafarroa Bizirik* ekimaren agenda Orreaga fundazioaren webgunean: <http://www.orreagafundazioa.eus/agenda-de-nafarroa-bizirik/>

⁸ *Diario de Noticias de Navarra* egunkarian agertutako berria <https://www.naiz.eus/es/info/noticia/20151223/nafarroa-bizirik-volvera-a-colocar-los-monolitos-atacados> (Azken kontsulta: 2021/05/)

hasiera⁹. Modu horretan, udaletxeko plazaren eta bertan bil daitezkeen 12.500 pertsonen irudiak mundu osoan zehar zabaltzen dira. Beste aldetik, udaletxe plazan ikus daitezkeen aldarriak momentuko testuinguru politiko, sozial edo ekonomikoan ematen ari diren eztabaiden irudi grafikoa da. Hala ere kontuan hartu beharra dago, udaletxe aurrean biltzen direnen kopuru handi bat ez dela Nafarroa edo EAEkoa, baizik eta Espainiakoa edo beste herrialdetakoak. Udaletxe plazan identifika daitezkeen aldarri ohikoenak, ikurriña, dispersio politikaren kontrakoak eta bestelakoak izan dira. Baina, 2012. urtetik aurrera pixkanaka-pixkanaka Nafarroako erresumari erreferentzia egiten dion ikonografia presentzia hartzen joan dela aurkeztuko dut.

Laburbilduz, esparru honetan ikus daitezkeen aldarriak ez dira bat-bateko erabaki baten ondorioa, baizik eta aldarrikapen zehatz bat zabaltzeko helburu estrategikora bidean egindako pausuetako bat. Horregatik, 2012tik aurrera Nafarroako Erresumaren ikonografiaren presentzia aztertuko dut urtez urte 2019ra arte, garapena ikusteko helburuarekin¹⁰. Hau, Google-n urte bakoitzaren (2012tik 2019ra) San Ferminetako txupinazoaren irudiak bilatuz arakatu dut, batez ere, udaletxe plazaren irudietan arreta handia jarritz. Argi ez ikustekotan, bideoak ere aztertu ditut.

2012. urtea: Plazan ikus zitezkeen ikurren artean, ikurriña, dispersio politikaren kontrako banderak eta supermerkatuen pilotak izan ziren¹¹. Urte hartan, San Ferminen aurretiko hilabeteetan, Nafarroaren konkistaren gaia pil-pilean egon arren, ez zuen izan ondorengo urteetako presentzia maila (2.1.irudia).

2013. urtea: Lehen aipatutako ikurriñaren eztabaidaren harian urte horretako jaien hasiera atzeratu egin zen, udaletxeko aurrealdean jarri zen tamaina handiko ikurriña baten ondorioz. Beraz, urte honetako irudiak aztertzerakoan, ez da Nafarroako Erresumaren ikonografiarik ikusten; dispersio politikaren kontrakoa, ordea bai (2.2.

⁹ 2018. urtean argitaratuko ikerketa baten arabera, Iruña eta bere eskualdeak, 521.396 bisitari jaso zituen urte hartako uztailearen 6tik 14era bitartean: %44,45 turista internazionalak; %37,11 Nafarroako biztanleak %18,44 Estatuko erkidegotakoak.

¹⁰ 2020. urtean COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz San Ferminak bertan behera geratu ziren, horren ordez, ekintza txikiak burutu ziren hainbat auzotan zehar. Txupinazoa ospatu bazen ere, plazan sar zitezkeen pertsona kopurua oso murriztu zen eta beraz ezinezkoa da beste urteetan egin daitekeen aldarrien azterketa egitea.

¹¹ Ikurriña, EAEko bandera ofiziala izanik Iruñeko San Ferminetan udaletxe plazara sartzeari debekatua izan zen 2003ko Ikur Legearekin argudiatuz. Hala ere, debekuaren aurrean, herri mugimenduek saiakera handiak egin zituzten ikurriña plazan sartzeko eta ondorioz, istilu handiak egoten ziren polizia eta jendearen artean. Publizitatea egiteko helburuarekin, hainbat supermerkatu katek haizez beteriko pilota handiak sartzen zituzten.

irudia).

2014. urtea: Aurreko urteetako aldarriak mantendu ziren, tamaina handiko bi ikurriña eta dispertsio politikaren kontrako banderekin, baina urte honetako berritasuna, Nafarroako kateen bandera baten presentzia da. Alde batetik, bi makilekin lotutako bandera batek, honako hau aldarrikatzen zuen: “*Ni Madrid, Ni Baiona, Ni Felipe, Nafarroa es la que decide*”. Bestetik, Nafarroako ezkutua eta “independentzia” aldarria zeukan bandera zegoen (2.3.irudia).

2015. urtea: Ikurriñak eta dispertsio politikaren kontrako aldarrien presentziak nabarmena izaten jarraitzen zuen bitartean, Nafarroako ikonografia mantendu zen. Nahiz eta aurkitutako irudietan ez ikusi oso modu argian, lortutako iturri grafikoetan tamaina handiko Nafarroako bandera bat ateratzeko saiakera antzeman daiteke. Gogoan izan behar da, plazan biltzen den pertsona kopurua oso altua denez horrelako banderak ateratzea ez dela lan erraza, eta horregatik askotan, aldarri asko ez dira argazkietan antzematen, denbora laburrez irauten dutelako (2.4.irudia).

2016. urtea: Aurreko urteetan deskribatutako joera berdinak jarraitu zuen, urte hartan, “*Nafarroa decide*” leloa izango zuen banderarekin batera “independentzia” aldarria zeukan beste bat ikus zitekeen. Hauek ez ziren ikusi ahal ziren aldarri bakarrak, ikurriñak ere presentzia izan zuelako, eta baita puzgarri publizitarioek ere (2.5 irudia).

2017. urtea: Aurreko urteetan aiputako aldarriei Altsasukoak Aske plataformaren eta esteladaren aldarriak batuko zaizkie. Urte hartan, ikurriña handi bat eta dispertsio politikaren kontrako banderak mantentzeaz gain, Nafarroako kateen bandera handi bat ikusi zen. Bandera handietaz gain, urte hartan “independentzia” leloarekin batera joango ziren bandera txikiak agertzen joan ziren (2.6.irudia).

2018. urtea: Gaztetxeen eta okupazioaren aldeko aldarria batu zitzaien aurreko urteetako aldarri guztiei. Urte hartan, Nafarroako kateak ikurriñaren presentzia berdina -tamainari dagokionean behintzat- izatera iritsi ziren (2.7. eta 2.8. irudia).

2019. urtea: Ikurriñak eta Nafarroako kateek presentzia berdina izan zuten, tamaina berdineko bi banderak antzeman daitezkeelako irudietan. Horretaz gain, aurreko urteetako aldarriak mantendu ziren, dispertsio politikaren kontrakoak besteak beste (2.9.

irudia).

2.2.2. Sadar estadioa (Indar Gorri)

Futbol munduan diharduten hooligan-taldeek ere, horrelako ikurren erabilera areagotu zuten 2012. urtetik aurrera. Kasu honetan, 1987an sortutako Indar Gorri taldeak Osasuna futbol-taldearen jarraitzaileek futbol-zelaietan ateratzen dituzten banderetan, besteak beste, antzeman daitezke. Hala ere, egia da honen inguruan aurki daitezkeen iturri grafikoak murrizak direla, talde hauetako partaideek, identifikatuak ez izateko, asko zaintzen dutelako argazkietan ateratzea eta partaideen pribatutasuna. Beraz, txupinazoaren esparruarekin egindako kronologiaren antzeko bat sortzea, asko zailtzen da. Esparru honetan ikusi daitezkeen ikur nagusiak Nafarroako kateak eta Arrano Beltza dira, modu ezberdinetan irudikatutak.

2012. urtean konkistaren urteurrenean, pankarta handi bat atera zuten futbol-partidu batean “Gora Nafarroa” leloarekin, eta harmaila osoan, Nafarroako kateen bandera txikiak eraman zituzten (3.1.irudia). Hurrengo urteetako partidu ezberdinetan, harmailan zehar ikonografia hau mantenduko da, hala nola banderetan, bufandetan edo ateratako pankartetan (3.2. eta 3.3. irudia).

Talde honen ekintza ez da futbol-partiduetara mugatzen, sare sozialetan ere presentzia handia daukatelako, eta bertan ikonografia mantentzen dela esan daiteke. Horren adibidea, 2014. urtean sare sozialen bidez zabaldutako eta haien blog-ean zintzilikatutako bideoa da, bazkide berritze kanpainarako egindakoa, hain zuzen¹². Bideoan Nafarroako gaztelu eta leku historiko ezberdinetan identifikatu ezin diren pertsonak bengalak pizten zituzten. Bitartean mezu ezberdinak ateratzen ziren, euskaraz eta gazteleraz. Agertzen ziren leku historikoak hauek ziren: Amaiurko, Oliteko eta Xabierko gazteluak, Noingo batailaren monumentua, Gareseko zubia, Donamariako dorrea eta Tiebaseko gaztelua. Bideoaren amaieran, Iruñeko portale berrian aurkitzen den zubian, pertsona kopuru handi bat bildu eta pankarta handi bat ateratzen zuten “Indar Gorri” jartzen zuena, pankartaren bi aldeetan, Arrano Beltzaren eta Nafarroako kateen banderak ateraz.

¹² Indar Gorri Youtubean igotako bideoa:
https://www.youtube.com/watch?v=y_SrIUeXBpc&ab_channel=IndarGorri

Bideoan agertzen diren esaldiak: “Gazteluz gaztelu”, “Herriz herri”, “Nafarroako bazter guztietatik”, “Gurekin bat egin”, eta “babestu Iruñea zaharra”.

Baina hau ez da urtean behin edo momentu zehatz batean eratzen den esparrua, San Ferminetako txupinazoa bezala, hooligan-talde hauek partidu guztietara bertaratzen dira, bai Iruñan eta bai kanpoan jolasten direnetera. Hortaz, aldarriak momentuan momentuko testuinguru sozialaren arabera izaten dira eta Nafarroako erresumarekin lotutako ikonografia ez da erabiltzen duten bakarra. Aurreko esparruan bezala, dispertsio politikaren kontrako eta ikurriñaren aldarriak ere egoten dira, beste batzuen artean.

3. Ikurrak gizarte-paisaian

3.1. Musika

Ikusitako ikurretako asko, Arrano Beltza eta kateak adibidez musikan ere antzeman daitezke. Baina kontuan hartu behar da abestiek kontaketa historikoa egiteko aukera ematen dutela, ikur horiei esanahi zehatza emanez. 2012. urtetik aurrera, Nafarroako erresuma, batez ere konkistaren gertakizun historikoa, gai nagusia izan da abesti eta albumetan. Urteurrenaren aurreko urteetan, honekin lotuta zeuden abestiak gutxi ziren, horien artean hauek aurki zitezkeela: Xabier Leteren *Nafarroa* (2006), Lauaxetak idatzitako *Amayur Gaztelu Baltza* olerkiaren (1936) letrarekin egindakoak edo Fermin Balentziaren *Navarra tiene cadenas* abestia. 2012. urtetik aurrera ordea, Euskal Herriko talde askok aukeratu zuten Nafarroako konkista haien abestien gaia izateko, hauetako asko, albumetan bilduta argitaratu izan direnak.

2012. urtean, Bardulia Ekoizpenak zigilu diskografikoak, *Nafarroa 1512-2012 Punk-Oi doinuak gure historia gogoratzen* izenburuko albuma atera eta hiru kontzertu antolatu zituen (Azpeitia, Elgeta eta Legazpiko Gaztetxeetan burututakoak). Albumak 24 abesti biltzen zituen (4.1. eta 4.2. irudia): Enboskada, *Amayur gaztelu baltza*, Brutal Calling, *Birkonkista*, Apurtu, *Egusentian*, Orreaga 778, *Non dira?*, *Amaiur 1522*, *Nafarroa*, Kaleko Urdangak, *Gure historia*, The Last Strength, *Pedro Mariskala*, Malos Tiempos, *Errozabal*, Secuestro Express, *Nafarroa*, Arkada Social, *Nafarroa hilezkorra*, T.D.I, *Albako Dukesa*, Slevy, *Resurrección*, Derailed, *Egun beltza!*, Deaf Squad, *Mugak zabalduz*, Interprete Desconocido, *Gurea da askatasuna*, Lastojaleak, *Joxe Juan*,

Havin'a Laugh, *Nafarroa*, Dirty Brothers, *500 urte eta bizirik*, Gazte Iraultza, *Ez da inoiz izango ahaztua*, *Nafarroa 1512*, *Nafarroa 1512*, Gomiztegiko Hartzainak, *Pro libertate patria gens libera state*, Siete Balas, *Nafarroa* eta Deaf Squad, *Atearog*.

Albuma, egindako hiru kontzertuekin finantziatu zen guztiz, horietan taldeek ez baitzuten ezer kobratu. Album hori 2012ko ekainean aurkeztu zen Amaiurren Kaleko Urdangak eta Orreaga 778 taldeekin (4.3. irudia). Kontzertuen kartelean irakur zitekeen bezala, lortutako etekin ekonomikoak *1512-2012 Nafarroa Bizirik* plataformarentzat bideratu ziren. Horretaz gain, albumak beste hainbat erakunderi banatu zitzaizkien salmenten etekin ekonomikoak zuzenean haientzat izan zitezten: Aranzadi Elkarteari Amaiurko indusketetan laguntzearren, Nabarralderi eta Herriko Tabernei.

Honetan parte hartu zuten taldeen artean, gutxi batzuek jarraitzen dute gaur egun (2020. urteko lehenengo hilabetetako “normaltasuna” arte) jotzen: Orreaga 778, Kaleko Urdangak, Malos Tiempos, *Nafarroa 1512* eta Arkada Social taldeak hain zuzen. Baina, talde batzuek beren osotasunean jarraitzen ez duten arren, beren taldekideek beste talde bat sortu izan dituzte, adibidez, Brutal Calling eta The Last Strenstheko pare bat kidek Orreaga 778 taldean jo izan dute. Hauek ere, album horretan parte hartzeaz gain Nafarroarekin lotutako abestiak egiten jarraitu zuten; Orreaga 778 taldearen *Nafarroa* edo *Azken Kresala* abestiak adibidez.

Horretaz gain, kontuan hartu behar da albumeko parte hartzaileek garai hartan *Bardulia* bezala ezaguna den mugimenduan barne zeudela. Hau 2004-2013 urte bitartean Gipuzkoan punk-Oi! musika estiloaren inguruan sortutako fenomeno sozial bezala defini daiteke, *skinhead* mugimendurekin lotura estua daukana. Esan beharra dago mugimendu honetan sortutako talde, abesti eta diska asko gazte sektore desberdin askotara iritsi zirela, doinu hauek belaunaldi batentzako ereserki bilakatu.

2012 eta 2019 urte bitartean, albumeko abesti batzuek presentzia nabarmena izan dute Euskal Herriko toki ezberdinetako jai giroan, bai herri txikietan eta bai jaialdi handietan (Hatortxu Rock edo 40 Minutu Rock bezalako musika jaialdietan)¹³. Hori modu adierazgarri batean ikusteko, gaur egungo musika plataforma ospetsuenetako batean,

¹³ Hatortxu Rock 1999an jaiotako musika jaialdia da. Bi helbururekin sortu zen orduan; euskal errepresaliatu politikoen egoera salatzen bozgorailu gisa eta dispertsio politikak presoen senideengan sortzen dituen gastu ekonomiko altuak ordaintzeko.

abesti horiek dituzten erreproduzio kopuruak beha ditzakegu. Kontuan hartuta, hala ere, album hau atera zen urtean (2012) Spotify plataforma ez zela existitzen eta Youtube oraindik hasi berria zela. Horien arabera ordenatuz, horrela geratuko ziren:

Spotify plataformatik ateratako erreprodukzioa ¹⁴:

1. *Nafarroa Siete Balas* 457.581
2. *Nafarroa Hilezkorra* Arkada Social 33.259
3. *Non dira?* Orreaga 778 16.401

Urte berean, *Nafarroa Bizirik* ekimenak beste album bat atera zuen, *Nafarroaren konkistaren musika albuma* izenburuarekin (4.4.irudia). Albuma bera aurkezterakoan ateratako prentsarako dossierrean azaltzen den bezala, “Nafarroa, konkista, eskubide lapurtuak, inbasioa, mugak, Amaiur, Orreaga, historia, oraina eta geroa...” dira jorratzen diren gaiak. 17 abestik osatzen dute, bai taldeek bai bakarlariek egindakoak: Xabier Lete, *Nafarroa*, Benito Lertxundi, *Orreaga*, Lauaxetak idatzitako *Amayur Gaztelu Beltza*, Bizardunak, *500 urte*, El Trono de Judas, *Urrunago*, Banda Batxoki, *Nafarroa*, Koiuntura, *Orreaga*, Fermin Valencia, *Navarra tiene cadenas*, Siroka, *Nafarroa*, Itziarren semeak, *Hemen gaude*, Iparfolk, *Tierra adentro*, Orkestra marxista, *400 hostia*, Skatu, *Izango gara*, Petti, *Amaiur gaztelu baltza*, Los Zopilotes Txirraos, *Herri zatituak*, Gozategi, *Nafarroa Bizirik*, Sobieth, *Ez da eten*, Flakut, *Araban bagare*, Urko Milagro, *Askatasuna* eta Koeio 104, *Mekagüen*.

Album honetako abesti gehienek ez dute gaur egun arte presentzia handirik mantendu jai giroan baina egia da Bizardunak talde nafartarraren abestia Iruñean egin zuten *lidup* baterako erabilia izan zela eta ospe handia lortu zuela¹⁵. Horretaz gain, *Nafarroa Bizirik* ekimenak 2012.urteko ekainaren 16an antolatutako manifestazio nazionalaren ondoren kontzertuak antolatu zituen Iruñeko zezen plazan. Bertan jo zuten taldeak, Barricada, Sutagar, Vendetta eta Goienetxe Anaiak izan ziren, albumean agertzen ez ziren taldeak hain zuzen ere (4.5. irudia). Hauek ez ziren izan antolatutako kontzertu bakarrak, urte bereko uztailaren 28an Eskoriatzan (Gipuzkoa) kontzertu akustikoak egon ziren, baina

¹⁴ Eguneratua: 2021/05/15

¹⁵ https://www.youtube.com/watch?v=veVIWdUquoQ&ab_channel=NafarroaBizirik (Azken kontsulta:2021/05/3)

horietan ere, ez zen egon albumean ateratzen zen talderik (4.6. irudia).

Bi album hauetaz gain, urte berean, Iheskidek *Arrano Beltzaren Hegaldiak* izenburuko abestia atera eta Kasu!-k *1512-2012* kantua atera zuen. Gaur egun arte talde askok gai honekin lotutako abestiak ateratzen jarraitu dute aurretik aipatutako abestien eragin nabaria erakutsiz. Urrteurrenetik bi urtera Tximeleta talde nafartarrak *Lurrari Lotuta* deiturikoa atera zuen eta 2015ean, Nafarroako Against You taldeak, *Nuestra Historia* argitaratu zuen. Abesti berrien artean, Brigade Loco taldearen *Gaztelu Beltza* abestia aurkitzen da, 2017.urtean atera zena.

Iheskide eta Brigade Loco, bizkaitarrak eta gipuzkoarrak hurrenez hurren, Euskal Herriko talde ospetsuen artean koka daitezke, jaialdi handietan eta toki ezberdinetan jotzeko aukera izaten dutelarik. Horregatik, talde hauen bi abestiak euskal musikan nabarmenak direla esan daiteke. Horren froga, plataforma erabilenen artean bisualizio kopuru altuak dituzte¹⁶:

	Spotify	Youtube
Iheskide - <i>Arrano Beltzaren Hegaldiak</i>	615.479	672.627
Brigade Loco - <i>Gaztelu Beltza</i>	395.764	103.969

1.1.Taula: Spotify eta Youtube platarfometan abestiek daukaten erreproduzio kopuruak.

3.2.Tatuajeak

Gizartean, ikur hauek ikusten diren beste alor bat, tatuajeena da, azken urteetan geroz eta gehiago hedatzen joan dena. Gorputz praktika hauek, identitatea autoeraikitze modu berri batekin lotu daitezke baina esperientzia indibiduala izateaz haratago konexio sozialak eraikitzen dituen prozesu sozialtzat har daitezke (Rojo Ojados, 2015). Horregatik praktika hauek burutzeko momentuan ikonografia hau identifikatzeak esanahi sozial handia dauka.

¹⁶ Azken eguneraketa: 2021/05/15

Aurretik aztertutako esparruekin alderatuz, tatuajeak alor pertsonalago batean kokatzen direla esan daiteke. Hauek biltzeko ezin izan dut argazki publikorik bilatu, baizik eta pertsonen profil pribatuetan (gehienbat tatuaje-estudioen sare sozialetan). Horregatik, ikur ohikoenak, hauen kopuruak eta egiten dituzten pertsonen jatorria sailkatzea eta sistematizatzea ezin da irudi pribatuen bitartez egin.

Tatuajeen artean, ikur ohikoenak -gehien ikusten direnak-, Amaiurko monolitoa eta Nafarroako kateak dira. Hauetaz gain, Arrano Beltza forma ezberdinetan, edo hiruren konbinaketak ikus daitezke. Tatuatzen diren pertsonen artean ez dira bakarrik nafarrak aurkitzen, gipuzkoar askok ere Nafarroako erresumarekin lotutako ikonografia tatuatzea erabakitzen dute. Ikurrekin batera esaldiak agertzen zaizkigu: *Nafarroa Bizirik; Betiko Argia 1512, Pro Libertate Patria Gens Libera State* (5.1, 5.2, 5.3, 5.4, 5.5 eta 5.6 irudiak).

3.3. Janzkera

Nafarroako ikonografia antzeman daitekeen beste atal bat kaleko paisaian, moda da. Gaur egun, kamisetak, jertseak, txapelak, lepokoak edo musukoak aurki daitezke Arrano Beltzarekin, Nafarroako kateekin edo bestelako elementu ikonografikoen konbinaketekin. Hauetako askoren jatorria, musika-talde, erakunde edo talde politikoak dira. Adibidez, Erasoka musika-talde bizkaitarrak bere logoan Nafarroako ezkutua ezarri zuen, gero kamisetetan ipiniko zutena (6.1. irudia). 2012. urtean Ezker Abertzaleko gazte mugimenduak ere “Gazte Martxa” ekimenaren logoan erabili zuen (6.2. irudia) eta kamisetak saldu zituen¹⁷.

Hala ere, ez da beti jatorri hori identifikatzen. Ikonografia ildo hau jarraitzen duen *merchandising* ugari saltzen diren dendak ere aurki daitezke: arropa, liburuak, diskak, banderak, katiluak eta ikurrak¹⁸. Jantzietan aurkitzen diren esaldien eta kontzeptuen adibide batzuk: *824tik* (..) *Nafartasun zaratatsua, Askatasuna, Betiko argia, Nafarroa...* (6.3, 6.4, 6.5, 6.6, 6.7 eta 6.8 irudiak).

¹⁷ Euskal Herriko herri batetik bestera ibilbidea egiteko gazteak biltzen dituen ekimenak, ibilbidean zehar hitzaldiak eta kontzertuak daudelarik.

¹⁸ “Ortzi” edo “Baiona”, Gasteizen eta Nafarroan hurrenez hurren aurkitzen direnak, adibidez. Liburu gehienak Nabarralde fundazioak argitaratutakoak.

3.4. Sare sozialak

Aurretik deskribatutako esparruak sare sozialetan islatuak ikus daitezke, non ikonografia honen erabilera handia identifikatu baitaiteke. Gaur egun, sare sozialak baliabide oso garrantzitsu bat bilakatu dira mugimendu sozial ezberdinentzat, handitzeko eta zabaltzeko aukera ematen dielarik. Horregatik, askotan erakunde edo espazio politiko batek horrelako ikonografia erabiltzen duenean, modu azkarrean irits daiteke populaziongana. Hau egun berezietan, adibidez, oso modu argian ikus daiteke. Gizarte-adierazpenak (irudiak eta ikus-entzunezko baliabideak) oso garrantzitsuak direlako aldarrikapenen esanahia, gorabeherak eta joerak ulertzeko. Hauen bidez atzean dagoen ideologiaren ikuspegi sinplifikatua ikustea ahalbidetzen dutelako (La Rosa, 2016). Arrazoi horregatik, oso esanguratsua da sare sozialetan Nafarroako erresumarekin lotutako ikonografia identifikatzea.

Egun zehatzetan edo gizartean egun historiko bezala identifikatzen diren datetan bereziki antzeman daiteke aztertzen ari garen ikonografia. Horren adibide da Nafarroako Foru Erkidegoaren Eguna, 1984tik abenduaren 3an ospatzen dena Frantzisko Xabierren heriotzaren urteurrenean. Egun berean, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen da Eusko Ikaskuntzak XX. mendean ezarri ondoren. Sare sozialetan egun honen ospakizunak presentzia handia hartzen duela azpimarratu behar da, aurretik azaldutako esparruak batzen baitira. Hauek, sareetan jartzen diren argazkien bidez antzeman daitezke, Instagram sare sozialaren kasuan: tatuajeen argazkiak, banderenak edo Amaiurko monolitoan ateratakoak igotzen dira. Hain zuzen ere, erreferentzia ohikoena Baztango Amaiur herrian zegoen gaztelua oroitzen duen monolitoa da. Honek, gero sakonduko dudan bezala esanahi historiko eta sinboliko garrantzitsua dauka. Horrela, abenduaren 3an jendeak bertan egindako argazki horiekin batera aurretik aipatutako abestiak txertatzen ditu.

Baina ikonografia honen presentzia, bestelako moduetan ere ikus daiteke. Sare sozialetako profil askotan (gipuzkoarrak, bizkaitarrak eta arabarrak barne), bizilekua jartzeko lekuan “Navarre Kingdom”, “Nafarroako erresuma” edo “Nabarra” bezalakoak aurki daitezke (7.1 eta 7.2 irudiak). Joera berdina antzeman daiteke sareetara igotzen diren argazkien kokapena edo *hashtags*ak ezartzerakoan: “Nafarroako erresuma” “Nafarroako erreinua” adibidez.

4. Historiarekin eraikitzen den memoria, abesti baten analisiaren bitartez

Musikaren alorrean Nafarroako erresumarekin lotutako ikonografiaren presentzia ikusita, abestien bitartez zabaltzen den errelato historikoa aztertzea oso adierazgarria izan daiteke. Honek entzuleek jasotzen duten ikurren eta iraganaren interpretazioaren berri izatea ahalbidetu digu. Horretarako, Iheskide talde bizkaitarraren *Arrano Beltzaren Hegaldiak* deituriko abestia aukeratu dut.

Aukeratzeko bi arrazoi nagusi egon dira: taldearen presentzia eta ibilbide musikala. Alde batetik, gizartean daukan presentzia handia. Hau neurtzeko zaila bada ere, aurretik adierazitako (Taula 1.1.) musika-plataformetan (Youtube, Spotify eta abar) ikus daitezkeen bisualizazioak oso adierazgarriak dira. Beste aldetik, taldea 2004. urtean sortuta, Euskal Herriko musika eszenan ibilaldi oparoa izan duela esan daiteke, beraz herri, hiri eta hainbat toki ezberdinetan jo izan dutenez, haien abestiak ezagunak dira neurri batean¹⁹.

Aztertuko dudan abesti honekin aurretik azaldutako diskurtso historiko zehatz bat bultzatzen duten ekimenen isla identifikatzen saiatuko naiz. Aldi berean, abesti honek izan dezakeen eragina, Nafarroako konkistari buruzko jakin-mina piztuz, kontuan hartuta.

¹⁹ Euskal Herria kontzeptua erabiltzen dudanean Iparraldeko herrialdeak barne hartzen baditut ere, esan beharra dago ezin dela baieztatu bertan abesti honek arrakasta berdina izan duen edo ez.

Erresumen garaietatik hona
Odolustu nahi izan duten herria

Euskaldunon lurralde
Nafar gudarien aberria

Kateek batzen gaituzte

Katez gaituzte lotuak

Bide bazterrak
Gorpuz bete zituzten
Jauntxo agintari kolonoak

Makurtu ginela salduz
Engainatu nahi gaituzte

Odola darion lumaz

Idatzitako historian

Arrano beltzaren hegaldiak

Jarraituz egin genuen bidean

Ereindako borroka haziak
Gaurko egunetaraino loratu dira

Amaiurko gaztelu beltzetik

Sasiko gordelekuetara
Belaunaldiz belaunaldiko
Iraultza ta matxinadak

Ezpatak ta sua
Etsaiaren aurka
Zerua itxiz kea
Mendetan zehar
Eguzkia ukatzen
Diguten heinean

Boliek aurrera

Jarrai dezala

Askatasunaren izenean

Menpeko bihurtu gaituzte

Odola darion lumaz

Idatzitako historian

Arrano beltzaren hegaldiak

Jarraituz egin genuen bidean

Ereindako borroka haziak
Gaurko egunetaraino loratu dira

Bostehun urte

Konkista baten menpe

Zapalkuntzari hortzak erakusten

Seme-alaben irribarrea

Izango da gure mendekua

Arrano beltzaren hegaldiak

Jarraituz egin genuen bidean

Ereindako borroka haziak
Gaurko egunetaraino loratu dira

Bostehun urte

Konkista baten menpe

Zapalkuntzari hortzak erakusten

Seme-alaben irribarrea

Izango da gure mendekua

Mendekua,

Izango da gure mendekua

4.1. Arrano Beltza

Abestia abiapuntu bezala hartuta, izenburuan bertan aurki daiteke ikur hau, honen bitartez helarazten den mezuan garrantzia handia daukala agerian utziz.

Ikur honen erabileraren jatorria 1970eko hamarkadaren amaieran aurki daiteke. Telesforo Monzón ezker abertzaleko buruzagi nabarmenak, Arrano Beltza, mugimendua aldarrikatzeko proposatu zuenean hain zuzen ere (Santamarina, 2016). Teorian, historia berreskuratzeke ariketa izan zen, 1194-1234 artean Nafarroako errege izan zen Antso Azkarraren zigilu errealean oinarritzen baitzen. Urte batzuk geroago, 1978. urtean Jesús Idoetak eta Javier Baldak atzealde horiko bandera diseinatu zuten, enblema honekin elkartzuz. Arrano Beltza zeramaten banderen lehenengo agerraldia 1978ko Arbasoen Egunean izan zen eta gaur egun arte mantendu da (Santiago de Pablo et al., 2016).

Hala ere, arranoaren jatorriaren inguruko bibliografiak, Antso VII.ak enblema pertsonal (ez erreinu osokoa) bezala bereganatu zuenera arte eraman gaitzake. Gilen Tuterakoak okzitaniaraz konposatu zuen *Cansós de la Crozada contr'als erejes d'albegés* kantan, errege hispanikoen enblema deskribatu zituen: *l'ala* (arranoa) Nafarroakoari atxikituz (Alfaro Perez, 2016)²⁰.

Antso VII.ak arranoa bereganatzearen zergatiak eta jatorriak ikergai-objektu izan dira, baina honi buruzko gakoa Arnaut Oihenartek eman zuen, XVII. mendean²¹. 1638. urtean argitaraturiko *Notitia utriusque Vasconiae, tum Ibericae, tum Aquitanicaean*, Antso Azkarraren enblema bere aitaldeko amona Margaritę de l'Aiglerengandik oinordetzan jaso zuela azaltzen zuen. Alfontso Borrokalariak -Aragoi eta Iruñako erregea- konkistan Rotrou du Perche VI. a, Percheko konde normandiarra, lehengusuaren laguntza jaso zuen. Laguntza eskertzearen, 1128. urtean Alfontso, Corella eta Tuteraren tenentziak eman zizkion, aldi berean, honek bere ilobari, Margaritę de l'Aigleri laga zizkionak. Izan ere, etorkizunean Nafarroako erregea izango zen Gartzia Berrezarlea (1134-1150) eta Normandiako noblearen arteko ezkontzaren ondorioz, Antso Jakituna (1150-1194) jaio zen. Hau, Antso Azkarraren aita izan zen,

²⁰ Gilen Tuterakoa XII. mendean Tuteran jaiotako trobadorea izan zen.

²¹ 1592ko abuztuaren 7an Maulen (Zuberoa) jaio zen literatur gizona eta historialaria izan zen. Bere heriotza data ere ez da zehaztasun osoz ezagutzen.

Normandiako amonarengandik enblema pertsonala bereganatu zuena 1200 urtea baino lehen. Gaur egun, Normandiako L'Aigle herriak bi buruko arranoa mantentzen du armari bezala (Alfaro Perez, 2016). Antso VII. aren heriotzarekin arranoa enblema bezala erabiltzeari utzi zitzaion, baina egia da gaur egun, Nafarroako zenbait herritako armari ofizialetan mantentzen dela: Corellan, Villafrancan edo Valtierran adibidez.

Euskal nazionalismoaren mugimenduek egindako ikur honen erabilerara bueltatuz, Patxi Zabaletaren adierazpen ospetsuak azpimarragarriak dira gaur egun Arrano Beltza erabiltzearen arrazoiak ulertzeko²²:

El arrano beltza es el emblema de los reyes navarros desde Iñigo Arista hasta Sancho VII el Fuerte. Por lo tanto, de los ocho siglos que pervivió el reino como tal, contando los setenta años en los que fue un reino independiente en Iparalde, durante cuatro fue el símbolo de Navarra²³.

Honetaz gain, atzealde horia edo gorriarekin Arrano Beltzaren bandera, mendeetan zehar euskal lurralde guztien bandera izan zela esan da, Nafarroako errege guztiengatik erabili zela argudiatuz, erreinuaren sorreratik IX. mendean Antso VII. a arte (Santiago de Pablo et al., 2016). Baieztapen hauek, ordea, ez dituzte partekatu Nafarroako Erresumaren sinboloak aztertzen dituzten historialariek. Lehen azaldu bezala, eta gaur egun arte ikertu izan denaren arabera, ziurtasun bakarra, hau da, Antso VII. ak ikur bezala erabili zuela.

Ikur honen erabilera aipagarria egin duen beste eragile bat, ETA talde terrorista izan zen. Taldearen adierazpen publikoen eszenaratzean hainbat sinbolo identifika zitezkeen: ikurriña, Arrano Beltza, Nafarroako bandera (ez ofiziala) eta taldearen anagrama.

Argi dago beraz, Arrano Beltza XX. mendetik aurrera ohiko den ikur bihurtu dela Euskal Herriko gizartearen zenbait sektoretan: karteletan, pegatinetan, panfletoetan, pankartetan, kaleko-hormetan edo tatuajeetan. Esanahiari dagokionean, lehenengo

²² Patxi Zabaleta Zabaleta (Leitza, Nafarroa Garaia, 1947ko maiatzaren 20a) euskal idazlea eta Aralar alderdiko politikaria izan zen. Herri Batasunaren sortzailetakoa eta mahaikidea izan ondoren, desadostasunak zituela eta, 2001ean alderdia utzi eta Aralar sortu zuen.

²³ *Arrano Beltza, un estandarte con mayúsculas*

<https://martintipia.com/2014/12/08/arrano-beltza-un-estandarte-con-mayusculas/>

momentutik zazpi probintzien lurralde batasunari atxiki zitzaion; batez ere, Nafarroa eta EAEko lurraldeei (Santiago de Pablo et al., 2016).

Abestian, “Arrano Beltzaren hegaldiak / Jarraituz egin genuen bidean” agertzen diren esaldiak zentzu gutxikoak dira perspektiba historiko batetik, erreinu osoko enblema izango balitz bezala erabilia delako, mendeetan zehar egindako ibilbidearen gidaritzat hartuz. Bestalde, azaldu bezala, Antso VII.aren erregealditik 1512ko konkista arte, ez delako Arrano Beltzaren presentziarik aurkitzen. Halaber, guztiz ulergarria da, ordea, ematen zaion zentzua, kontuan hartuta lehen azaldu ditudan euskal nazionalismoaren interpretazioak.

4.2. Amaiurko Gaztelua

Sare sozialetan, abestietan eta tatuajeetan gehien antzeman daitekeen ikur bezala defini daiteke. Amaiur, Nafarroako Baztan haraneko herri bat da eta bertan kokatzen da gaur egun gaztelua oroitarazten duen monolitoa.

1512-1522 urte bitartean Nafarroako konkistaren testuinguruan kokatu behar dugu, Gaztelako (eta Aragoiko) koroen aldetik burutzen ari zirena. Amaiurko gaztelua 1521. urteko urriaren 3an berreskuratu zuten Jaime Velaz Medranokoaren gidaritzapean zeuden 150 gizonak (Enrike II.aren aldekoak). Azkenean, zenbait eraso eta setio garrantzitsu jasan ondoren, Amaiur 1522. urteko uztailean errenditu zen (Monteano Sorbet, 2010). Honela, erasoen ondorioz Nafarroa Garaian Albretarren menpe zegoen azken gotorlekua suntsituta geratu zen.

1920. urtean, Amaiurren defentsaren laugarren mendeurrenaren bezperan, Nafarroako “*Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos*”eko Julio Altadillek (presidenteordea 1902tik) indepedentziaren azken babesleei monumentu bat eskaintzeko proposamena egitea onartu zuen. Egunkari liberalek, progresistek, monarkikoek eta jaimistek proposamenaren aurrean izandako erreakzioa ona izan zen. Azkenean, Nafarroako Diputazioak proiektua onartu zuen (Sanchez-Prieto eta Nieva Zardoya, 2005).

Lehenengo harria jartzeko antolatu zuten ekitaldian, Lorenzo Oroz, Diputazioko lehendakariordeak esandakoa azpimarragarria da: “*la energía indomable y fidelidad ejemplar de aquellos insignes vascones*”, “*el honor, la lealtad y el valor indómito evidenciado en la defensa del Castillo de Amaiur*” eta “*patriotas ejemplares*” bezala definitu zituen (Jimeno Jurío, 2004). Monumentuan ezarritako goiburuan esaldi hau jarri zen: “*A los hombres que en el Castillo de Maya pelearon en pro de la independencia de Navarra, luz perpetua. 1522*” (Santamarina, 2012). Hasierako proiektuak zehazten zuenaren kontra, oroitarrian Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko armariak jarri ziren. Honek polemika sortu zuen karlismo, liberalismo eta kontserbadoreen sektore batzuetan, izaera separatista ematen zitzaiola argudiatuz. 1926. urtean, Nafarroako gobernadore zibilak, eztabaidarekin bukatzeko, Espainiako armaria jartzeko agindua eman zuen (Santiago de Pablo et al., 2016).

1931ko uztailaren 26tik 27rako gauean, oroigarria dinamitaz lehertazi zuten. *Estatuto Vasco-Navarroren* kanpainaren (euskal nazionalista eta karlisten arteko itunaren ondorioz sortua) testuinguruan gertatu zen. Erasoaren errudunak, sektore errepublikanoak -itun hori ezegonkortzeko helburuarekin- izan ote ziren eztabaidatu zen arren, gaur egun arte ez da argitu zein izan zen benetako autorea (Santamarina; 2016). 1976 urtetik aurrera Baztan Haranean monumentua berreraikitzeke ideia indartu zen. Babesa eta finantziazioa bilatu ondoren, 1982. urteko urriaren 10ean Nafarroako Parlamentuaren eta Eusko Jaurlaritzaren presentziarekin gaur egun aurkitzen den monolitoa aurkeztu zen (Santamarina, 2012).

1512. urteko Nafarroako konkistaren inguruan eztabaida anitzak izan ziren urteetan zehar. Victor Pradera diputatu tradizionalistak legitimoa izan zela esan zuen, errege-erregina nafarrak Aita Santuak eskumikatu zituelako. Hau, nazionalismo eta karlismoaren zati batek ukatu zuen. Amaiur eta konkistaren inguruko eztabaidak abiapuntu bezala har daitezke gaur egun, abertzaleen iruditerian daukan garrantzi sinbolikoa azaltzeko. Amaiur izena, Nafarroako EAJ-ren prentsa-bulegoa, Gerra Zibileko gudari batailoi bat, 1979ko Nafarroako Parlamentuko talde abertzalea eta 2011an antzeko hautagaitza bat izendatzeko erabilia izan da. ETAk ere komandoak izendatzeko erabili zuen, eta azkenik, 1970etik aurrera izen propio bezala erabiltzen hasi zen Nafarroan eta EAEn (Santiago de Pablo et al., 2016).

Abestian, “Amaiurko gaztelu beltzetik, Sasiko gotorlekuetara” identifikatzen da ikurra. Azaldutako esanahi sinboliko eta historikoaz gain, Lauaxeta euskal idazleari ere erreferentzia egiten dio. Honek, 1935. urtean “Amaiur gaztelu baltza” poema idatzi zuen, bertan gazteluan bildutako gizonen erresistentzia eta besteen traizioa azaltzen dituela. Ikur honen erabilera abestian guztiz koherentea da, Nafarroako Konkistaren gertakizun historiko esanguratsuenetariko bat izateaz gain, sinbolikoa bihurtu delako. Hala ere, kontuan hartu behar dugu abesti hau, esan bezala, Euskal Herrian zehar abesten dela. Horrek esan nahi du, arabarrek, gipuzkoarrek, bizkaitarrek eta nafarrek abesten dutela, erresistentzia ikurtzat hartuz Amaiurko gaztelua eta Nafarroako konkista osotasunean. Baina paradoxa bada ere 1512. urtean, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko lurraldeak ez ziren Nafarroako Erresumaren parte, baizik eta eraso burutzen ari zen koroaren parte, Gaztelaren parte alegia.

4.3. Kateak

Aztertuko ditudan azken ikurrak Nafarroako bandera eta kateen armarrria izango dira.

Nafarroako bandera 1910ean diseinatu zen ofizialki, Espainiako nortasun ikurren eklosioaren ondorio argia izanik. Bi urte geroago, Navas de Tolosa guduaren zazpigarren mendeurrenean, Nafarroako Monumentu Historikoen Batzordeak Diputazioari kate tradizionalak armarrri eta bandera bezala ezartzea proposatu zion (Larraza eta Baraibar, 2013). Arturo Campionek, Hermilio de Olórizek eta Julio Altadillek, hiru *euskaro* ezagunek, Aita Moretek XVII. mendean sortutako mitoa onartu zuten. Honen arabera, Antso Azkarrak, Navas de Tolosako guduan apurtu zituen Miramolineko hesiaren kateak eta armarrri bezala bereganatu zituen. Gaur egun, Antso VII. ak ez zituela inoiz erabili jakin arren, kondairak jarraitzen du (Baraibar, 2009). Frankoren altxamenduarekin errege-koroa berreskuratu zuen armarrriak eta 1937 urtetik aurrera San Fernandoren *Cruz Laureada* gehitu zitzaion, honekin Frankok gerra zibilean borrokatutako nafarrak saritu zituelarik. Honela, kateek islatzen zuten fedegabeen birkonkistari, *Cruzada Nazional* berria gehitu zitzaion.

Frankoren heriotzarekin eta frankismoaren amaierarekin batera, Nafarroako ikurretan aldaketak eskatu ziren, sinbolo frankistak kentzeko ahaleginak (*laureada*, adibidez) ikurriñaren inguruko eztabaida bihurtuz (Baraibar, 2009). Honek *navarrismo* eta euskal

nazionalismoaren arteko eztabaidan zeukan jatorria. 1977. urtean ikurriñaren legeztatzeak, Nafarroako zenbait udalen toki publikoetan jartzea ekarri zuen, banderen gerra bezala ezaguna izan zena sortuz. Azkenean, 2003ko Ikurren Legeak Nafarroako instituzioetan ikurriñaren erabilera debekatu zuen²⁴. Halaber, Euskal Autonomi Erkidegoa ere armarritik (Laurak Bat) kentzera derrigortua izan zen Auzitegi Konstituzionalaren aginduz (Santiago de Pablo et al., 2016).

Hurrengo urteetan, euskal nazionalismoak Nafarroaren paper zentrala azpimarratu du, Erreinu Zaharra Euskal Estatu Historiko bezala identifikatuz. Paradoxikoki, bere ikurrak, ordura arte *navarrismo*-arekin lotuak, nazionalismoari elkarlotzen joan dira. Gaur egun erabilitako banderak euskaldunen subiranotasunaren ikur bihurtzeko helburua du, hau da, “Nafarroako Estatu Independientea” (Santiago de Pablo et al., 2016).

Abestiak, “Kateek batzen gaituzte, Katez gaituzte lotuak” esaldiarekin, Fermin Balentziaren “*Navarra tiene cadenas*” kantuari erreferentzia egiten diola pentsa daiteke. Bertan “*las (cadenas) del escudo son nuestras*” kateak jatorri historikoarekin lotuz eta “*las de fuera son impuestas*” esaldiak, Gaztelako eta Aragoiko koroek konkistatzerakoan sortutako ”harremanari” erreferentzia egiten dio.

4.Ondorioak

Lanean zehar aztertu bezala, diskurtso historiko zehatzak ordezkatzeko dituzten ikurrek gizarte-paisaian duten presentzia nabarmena da. Kasu honetan, *Nafarroa Bizirik* ekimenak 2012. urtean egindako ekintzek Euskal Herriko gizartearen zenbait sektoretan eragina izan dute. Ikurrak modu ezberdinetan zabaldu ziren: hitzaldi, ekitaldi edo aldarrikapenen bitartez eta modu honetan, atzean dagoen kontakizun historikoa finkatu dela ikus daiteke tatuajeen edo janzkeraren bidez. Horren adibidetzat har daiteke, *Nafarroa Bizirik* ekimenak ezarritako helburuen eta abestien arteko lotura. Hain zuzen asmoetako bat garaileek idatzitako bertsioko historiko ofiziala deuseztatzea izan zen. Aztertutako abestian bertan ideia hori identifika daiteke “odola darion lumaz, idatzitako historia”.

²⁴ Horren ondorio dira, Iruñako txupinazoan, plazan ageri diren aldarrien inguruko eztabaida guztiak.

Memoria kolektiboak, zenbait gertakizun historiko (kasu honetan 1512. urteko konkista) gaur egungo helburu politikoak lortzeko (edo argudiatzeko) gidoian txertatzen ditu. Hori egiterakoan, hainbat erabaki hartzen dira: zer oroitu, zer ahaztu eta loriatsua edo lotsagarria denaren artean erabaki. 2012. urtean *Nafarroa Bizirik* sortu zen bezala, aurretik, *Nafarroa Altxa* sortu da, Noaingo Batailaren 500. urteurrenaren harira, Nafarroaren eta Euskal Herriaren askatasuna eta burujabetza aldarrikatzeko²⁵. Ekimen honek ere, abestien baliabidea erabili izan du mezua zabaltzeko, Rotten XIII taldeak egindako abestia adibide. Jada aipatutako paradoxa errepikatzen da: konkistaren garaian Nafarroako erreinuaren parte ez ziren lurraldeak (Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia) barne hartzen ditu memoria kolektiboa osatzean.

Pertzeptzio pertsonal batetik haratago inkestarekin baieztatu egin da esparru publikoan ikurrek presentzia daukatela. Modu honetan, horiek islatzen duten diskurtso historikoa eta beraz atzean egon daitezkeen helburu politikoak zabaltzen dira. Azpimarratzekoa da, gaur egun Ezker Abertzaletik sortutako ekimenek dutela presentzia nabariena. Azaldutako gizarte-paisaia -batez ere gazteena- antzeman daitekeena honen parte baita.

Horretaz gain, ikurren erabilerak bere esanahi historikoa nahasteko gaitasuna daukala gogoan izan behar da. Beharbada gaur egun ikur bati ematen zaion interpretazioa kontraesankorra izan daitekeelako jatorrian zuen esanahiarekin. Horren adibide dugu, Arrano Beltza, nahiz eta jatorrian Antso VII.aren enblema pertsonala izan, hau da, izaera monarkikoa duen ikurra, gaur egun inork ez dio esanahi hori ematen. Horren ordez, Nafarroako erresumaren ibilbide historiko guztian zehar izandako ikurtzat hartzen da.

Helburua ez da memoria kolektiboari kritika egitea; argi dago horrek historiaren ezagutzaren zabalkundeari mesede egiten diola, abestiek gertakizun historikoekiko jakin-mina pizten baitute. Hala ere, historia iraganaren ebidentzia enpirikoan oinarritzen den heinean, ez dira memoria eta historia kontzeptuak berdin ulertu behar. Ezin da ukatu memoria kolektiboak derrigorrez eragin ideologikoa duela eta beraz, gizartean horrek eraikitako diskurtso historikoa historialariek idatzitakoaren gainean ezartzen denean,

²⁵ “Nafarroa berriz altxa” herri ekimenaren aurkezpenaren berria: <https://www.naiz.eus/es/info/noticia/20210424/nafarroa-berriz-altha-herri-ekimena-jaio-da> (Azken eguneraketa: 2021/05/27)

nahasketak eta gaizki-ulertuak sor ditzazke. Aldi berean honek hurrengo belaunaldiei helaraziko zaiena baldintzatuz.

5. Bibliografía

Alfaro Perez, Francisco José (2016). ¿Historia, memoria histórica o identidad? el "Arrano Beltza": un emblema normando. *Studia Europaea Genesnensia*, 14, 159-172 orr.

Baraibar Echeverría, Álvaro (2009). Historia y memoria de las cadenas de Navarra. *Hermes: pentsamendu eta historia aldizkaria = revista de pensamiento e historia*, 31, 34-42 orr.

Carretero, Mario; Rosa, Alberto eta Fernandez González Maria. (2006). Introducción: Enseñar historia en tiempos de memoria. In *Enseñanza de la historia y memoria colectiva* (11-36. orr.). Buenos Aires: Paidós

Larraza, María del Mar eta Baraibar, Álvaro. (2013). La bandera de Navarra (1910-1937). Un símbolo plural. *Historia contemporánea*, 47, 493-526. orr.

La Rosa, Amaro (2016). Movimientos sociales, redes sociales y recursos simbólicos. *Correspondencias & Análisis*, 6, 48-60. orr.

Monteano Sorbet, Peio J. (2012-2013). La conquista de Navarra. Un balance historiográfico reciente (2010-2013). *Gerónimo de Uztariz*, 28, 157-166. orr.

Mugueta, Iñigo. (2018). Historia divulgada e historia twitteada: emociones y representaciones sociales de la conquista de Navarra de 1512. *Imago Temporis. Medium Aevum*, XII, 531-557. orr.

Sánchez-Prieto, Juan María eta Nieva Zardoya, José Luis. (2004). *Navarra: memoria, política e identidad*. Iruña: Pamiela argitaletxea.

Santiago de, Pablo Contreras; Casquete Badallo, Jesús María; Mees, Ludger eta De La Granja Sainz, José Luis (koord.) (2012). *Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco*. Madril: Tecnos.

Santamarina Otaola, Josu. (2016). Más acá de la frontera: Arqueología y nacionalismo(s) en la “Nabarra” del siglo XXI. *ArqueoWeb*, 17, 239-267. orr.

6. Webgrafia

Naiz. (2015). *Nafarroa Bizirik volverá a colocar los monolitos atacados*. Kontsulta data: 2021/05/26. Eskuragarri: :
<https://www.naiz.eus/es/info/noticia/20151223/nafarroa-bizirik-volvera-a-colocar-los-monolitos-atacados>

Naiz. (2021). “*Nafarroa Berriz Altxa*” ekimena jaio da. Kontsulta data: 2021/05/26. Eskuragarri:
<https://www.naiz.eus/es/info/noticia/20210424/nafarroa-berriz-altha-herri-ekimena-jaio-da>

Saldise, I. (2014). *Arrano Beltza, un estandarte con mayúsculas*. Mattin Ttipia Kultur Elkarte. Kontsulta data: 2021/05/15. Eskuragarri:
<https://martinttipia.com/2014/12/08/arrano-beltza-un-estandarte-con-mayusculas/>

1512-2012 Nafarroa Bizirik. (2012). *Dossier de prensa sobre la iniciativa 1512-2012 Nafarroa Bizirik*. Kontsulta data: 2021/04/29. Eskuragarri:
https://issuu.com/1512-2012nafarroabizirik/docs/informe_prensa_madrid_28-29_de_mayo

1512-2012 Nafarroa Bizirik (2013). *1512-2012 Nafarroa Bizirik ekimenaren OINARRI IDEOLOGIKOAK*. Kontsulta data: 2021/04/29. Eskuragarri:
https://issuu.com/1512-2012nafarroabizirik/docs/oinarrien_dokumentua_publicatzeko

1512-2012 Nafarroa Bizirik (2013). *2012-2013ko ikasturtean egindako lanaren txostena*. Kontsulta data: 2021/04/29. Eskuragarri:
<https://issuu.com/1512-2012nafarroabizirik/docs/txostenadossier20122013>


7. Irudien eranskina

1.Nafarroa Bizirik ekimena

1.1.Irudia: Mugarri historikoaren adibidea (Iturria: *Diario de Noticias* - 2013)



1.2.Irudia: Gaztelu Egunaren egitaraua (Iturria: Hamaika.naiz.eus)



1.3. Irudia: Nafarroa Bizirik ekimenak egindako “egunkaria” (Iturria: abc.es)



1.4.Irudia: Ekainak 16an antolatutako egitaraua (Iturria: Igorre Sarean- WordPress.com)



1.5. Irudia: Ekainak 16ko martxa nazionalaren (Iturria: libertate.eu)



2.Txupinazoa

2.1.Irudia: 2012. urtea (Iturria:Ultima hora)



2.2.Irudia: 2013. urtea (Iturria: *Marca*)



2.3.Irudia: 2014. urtea (Iturria: RTVE.es)



2.4.Irudia: 2015. urtea (Iturria: *Cadena Ser*)



2.5.Irudia: 2016. urtean (Iturria: Pinterest)



2.6. Irudia: 2017. urtean (Iturria: El Periodico)



2.7.Irudia: 2018. urtea (Iturria: RTVE.es)



2.8. Irudia: 2018. urtea (Iturria: RTVE.es)



2.9.Irudia: 2019. urtea (Iturria: El Independiente)



3. Sadar estadioa. Indar Gorri

3.1.Irudia: 2012. urtea (Iturria: <http://edurneustarroz.blogspot.com/2012/06/nafarroa-bizirik-1512-2012.html>)



3.2.Irudia: Sadar estadioko harmailak (Iturria: indar87gorri.blogspot.com)



3.3.Irudia: Indar Gorri taldearen bufanda (Iturria: todocoleccion)



3.4.Irudia: Indar Gorriren logoen konbinaketa (Iturria: Indar87gorri.blogpost.com)



4. Musika

4.1. Irudia: Nafarroa puk oi! (Iturria: amazon.com)



4.2. Irudia: manerasdevivir.com



4.3 Irudia: Amaiurren egindako kontzertua (Iturria: potroskins crew)



4.4. Irudia: Nafarroa Bizirik ekimenak egindako albuma (Iturria: Diario de Noticias)



4.5. Irudia: Nafarroa Bizirik ekimenak Iruñan antolatutako kontzertuak (Iturria: A ras del cielo)



4.6. Irudia: Nafarroa Bizirik Eskoriatzan egindako kontzertuak (Iturria: bizkaie.biz)



5. Tatuajeak

5.1. Irudia: Instagramen aurkitutako tatuaje collage (Iturria: *jonmrattoo* instagram kontua)




5.2. Irudia: Arrano Beltza eta kateen tatuajea (Iturria: *zen tatto studio* facebook)



5.3. Irudia: Kateen tatuajea (Iturria: *axiotls* instagram kontua)



5.4. Irudia: Monolito eta Arrano Beltza daramatzen "gudari" bat (Iturria: *axiotls* instagram kontua)



5.5. Irudia: Amaiurko monolitoaren tatuajea (Iturria: facebook.com)



5.6. Irudia: Amaiurko monolitoare tatuajea (Iturria: *axiotls* instagram kontua)



6. Janzkerak

6.1. Irudia: Erasoka taldearen kamiseta (Iturria: gramho.com)



6.2. Irudia: Gazte Martxaren logoa (Iturria: Barakaldoko Gazte Asanblada)



6.3. Irudia: "Askatasuna" aldarria eta Nafarroako kateak daramatzen kamiseta (Iturria: ortzidenda.com)



6.4. Irudia: Arrano Beltza eta kateak daramatzen kamiseta (Iturria: ortzidenda.com)



6.5. Irudia: "Nafartasun zaratasua" (Iturria: ortzidenda.com)



6.6. Irudia: Nafarroako adabakiak (Iturria: ortzidenda.com)



6.7. Irudia: Nafarroako kateak eta Arrano Beltza dituen katilua (Iturria: ortzidenda.com)




6.8. Irudia: Intsignia ezberdinak (Iturria: ortzidendaren Instagram konntua)



7.Sare sozialak

7.1. Irudia: Instagrameko profil bat “Gure den Nafar estatua berreskuratzea bide bakarra da” esaldia eta Nabarra kokapenarekin (Iturria: Instagram)



7.2. Irudia: Instagrameko argazki baten kokapena “Navarre Kingdom” (Iturria: instagram)



Zenbait ure dituzuz? / ¿Cuántos años tienes?								"Nafarroako konkistak" erantzutakoan zer erortzen zaizu burura?		Zure interesa nola Nafarroako historiari buruz inolakoa da?	
Instituzioen (OBASBATU) edo erresumenen (BIBLIOT) edo erresumenen historiari buruz dituzue?		Aurreko galderan bai izatekotan, zer irakatsi dizute?	Zer irakatsi?	Non?			Zer?				
46-55	Ez	Anexión en lugar de invasión	Anexioa	Ez			Invadidos no conquistados e información histórica intoxicada	Konkista, intoxicazioa	Oso txikia, ez zait interesatzen		
15-25	Ez			Bai			Ni idea	Ezer	Handia		
15-25	Bai			Ez	Kamisetetan zein liburuetan	Kamisetak, libururak	1512	Data	Ertaina		
26-35	Ez	Que navarra fue conquistada en 1512 por castilla	1512ko Konkista	Ez			Nada	Ezer	Ertaina		
56-65	Ez			Ez			Lo que perdimos	Konkista, galera	Ertaina		
15-25	Bai			Bai			Amaiur	Amaiur	Ertaina		
15-25	Bai	oso gutxi	Gutxi	Ez	Kalean	Kalea	1512 eta Fernando II	Konkista	Handia		
15-25	Bai	Lo justo	Gutxi	Ez			Harrotasuna	Harrotasuna	Ertaina		
56-65	Ez	Batalla de Roncevalles, Ribera musulmana, Participación en la reconquista de la península y reyes Navarros.	Konkista aurreko garaia	Bai			La anexión de Navarra al Reino de Castilla.	Anexioa	Handia		
56-65	Ez			Bai	Manifestaciones o concentraciones, camisetas, banderas	Manifestazioak	Guerra y desaparición de un estado con instituciones propias	Konkista, galera	Ertaina		
15-25	Ez			Ez	En lugares institucionales	Erakundeak	Navas de Tolosa	Navas de Tolosa, Orreaga...	Ertaina		
56-65	Ez			Ez			Imposición	Inposaketa	Handia		
56-65	Bai			Ez			1512	Data	Ertaina		
15-25	Bai	Poco	Gutxi	Bai			Poco	Gutxi	Ertaina		
26-35	Bai	No recuerdo	Ez du gogoratzen	Ez	Banderas, canciones	Banderak, kantak	1512	Data	Ertaina		
46-55	Ez	Toda la historia referente a Navarra	Asko, dena	Ez			Cuando las coronas de Aragón y Castilla anexionaron Navarra	Anexioa	Oso txikia, ez zait interesatzen		
15-25	Bai			Ez			1512	Data	Oso txikia, ez zait interesatzen		
15-25	Bai			Bai			Castilla y Aragón	Gaztela eta Aragoiko Erreinua	Handia		
15-25	Bai	Orreaga, navasdetolosa, miramamolim, etc etc	Konkista aurreko garaia	Bai	Corazonistas	Armarriak	Kateak	Kateak	Ertaina		
46-55	Ez	zein urtetan gertatu zen, pertsona esangusatsuenak eta ze garrantzia izan zuen.	Certaera eta pertsonai nagusiak	Ez	herrietan zehar	Kalea	amaiurko gaztelua	Amaiur	Ertaina		
56-65	Ez			Ez			Un periodo muy largo de la historia de Navarra.	Sailkatu gabea (SG)	Ertaina		
15-25	Ez			Bai			Amaiur. Arrano beltza.	Amaiur, Arrano Beltza	Handia		
56-65	Ez			Ez	Jende asko joaten da amaiurrera eta argakiak ateratzen ditu, baina agian bertan gertatutakoa ongi jakin gabe eta asko idealizatzen bertakoa (ez dakit ziur). Instagramen asko ikusten da	Manifestazioak	Batetik selektibitatea, termino hori ikasi behar izan genuelako eta hidoriako azteketan idatzi. Beste batetik nafar herriaren gainbehera, egia esan ez dakit asko baina irakurri dudana gatik konkista ematerako momentuan nafarroa nahiko ahul zegoen. Eta ez nuen espero(konkista azkenean beti kontatu delako, edo gutxienez nire inguruan nafarroaren ikuspuntutik) nafarroa hain "erraz" konkistatu izana, oso denbora kuxkiko kontua izan baitzen	Konkista, galera	Ertaina		